

## Amaia Aldai dimoztarra Plazandreak Txapelketako irabazle Nora Mendizabalegaz batera

Finala abuztuaren 5ean jokatu zan eta Amaia Aldai eta Nora Mendizabal 22-21 gailendu ziran Goiuri Zabaleta eta Enara Gaminderen kontra, Bilboko Esperanza frontoian jokaturako partiduan. Emaitzak erakusten dauan moduan, finala estua izan zan eta Aldaik eta Mendizabalek sufridu behar izan eben partidua irabazteko. **11. orrialdea**



# Lau eguneko egitarauagaz herriko jaiak ospatzeko prest dagoz Artean

Hilaren 5etik 8ra ospatuko dabez andramariak Artean. Musikea izango da protagonista jaietan: egunez, trikitilariak eta elektrotxarangea eta gauetz, kontzertu eta erromeriak.

**M**ozorrotzeko gaia be musikea izango da. Etxebarria aita-seme trikitilariak, RocKalean elektrotxarangea, Eire taldearen kontzertua eta Akerbeltz, Zutik eta Badagirotaldea erromeria taldeak izango dira soinu banda ipiniko dutseenak jaietara.

Jana izaten da jaietako beste protagonista bat eta atal horretan, herri afaria, taloak, Tortilla Txapelketa eta txokolatea lagunakaz dastatzeko aukera be egongo da Artean. **5. orrialdea**



### IGORRE

## Motorzaleen kontzentrazioa hilaren 6 eta 7an

Urtero lez, Arratia Motor Taldeak, motorren festa antolatu dau Igorren, urri lehenengoaren 6 eta 7rako. Arratiatik urtero egiten daben motor ibilaldiaz gainera, jana, jolasak, akrobazia erakustaldia eta kontzertuak ez dira faltauko. Howdy Bluegrass eta Triple Zero taldeek joko dabe han. **6. orrialdea**



### UBIDE/ZEANURI

## Ubidek eta Zeanurik Idazkaria ez dabe konpartiduko

Izan be, Idazkari lanpostua konpartiduteko alkartea desegin dabe. Alkartea desegiteko ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zan abuztuaren 2an. Oin, Zeanurik bere idazkaria izango dau eta Ubidek beste herri batez konpartiduko dau. **6. orrialdea**



### IGORRE

## Drone batek grabauko dau Inbiu eguneko giza mosaiko erraldoia

Urri lehenengoaren 21ean izango da aurten, Igorreko Euskerearen Eguna, Inbiu Eguna. Euskerearen aldeko ekintza handi bat egongo da: giza mosaiko erraldoia, hain zuzen be, jai giroan egin eta kalerik zein airetik, drone batez, grabauko dana. Zuztertxuk, galzagorriek eta hankapaluek lagunduko dabe mosaikoan jentearen parte hartzea kudeatuten. Ekintza hau Katuska ta Katilu alkarteak gidatuko dau.

Herri bazkariak, Eingoren emonaldiak eta elektrotxarangearen kalejireak osotuko dabe eguneko programazioa. **8. eta 9. orrialdeak**

# Literatura txokoa

## VINO Y PÓLVORA

Susana Martín Gijónen *Progenie* (2020), *Especie* (2021) eta *Planeta* (2022) neukazan irakurrita, *Vino y pólvora* (2016) hau irakurri aurretik. Eleberri baltza oso modan dago, eskaintzea handia da eta beste generoakaz tartekatuta gustetan jata niri nobela poliziakoak. *Vino y pólvora* da irakurri dodan genero honetako atzena. Martín Gijón Sevillako idazleak talentua eta ofizioa erakusten ditu bere lanetan, atzenetan aurrekoetan baino gehiago, baina *Vino y pólvora* ez dau dezepzionetan. Askotan Fred Vargasen maistratuneraino ailegetan dala esango neuke, eta bere atzen eleberria *La Babilonia 1580* (2023) be irakurri egin beharko dot.

Suspense handiko trama ugari

ditu *Vino y pólvora*: ardaoaren enpresari bat hilda agertzen da bere bulegoan; mahastietan lan egiten dabean migrante komunitateko ume errumaniar bat desagertzen da; kasua ikertuko dauan Annika Kaunda poliziaren iragana tartekatzen da; baita bere bikotekidearen aita eta osabaren loturea Italiako Camorra erakunde mafiosoagaz be... Hau danau, gizarte honetan baztertuta dagozanen aldeko sensibilitate sozial handiagaz. Injustiziak salatuteko eleberri baltzak emoten dauzan aukerak aprobetxetan ditu Martín Gijonek bere nobeletan; honetan, migrazino gaiari helduz.

Personaiak ondo eregitu dagoz eta andrazkoak nagusi dira edo pisu handia hartzean dabe eta

euren gainean egiten dira trama gehienak: Annika Kaunda polizia, bere alaba Celia, amaginarreba Carla, Sabina, Mihaela ume errumaniarra, Beatriz Pereda antagonistea... Atzen urteotan, idazle asko andrazko, eta kasu batzuetan feminista izanda, eleberri poliziakoak ez da daborduko sasoi baten izan zan ia andrazko bako gizonetako mundu hertsia. *Vino y pólvora* nobela poliziakoan, injustiziei aurre egiten deuseenak, klase eta etniak zeharkatutako andrak dira.

Eraz eta gustura irakurten da eleberria, dituan tramek harrapatuta. Hondartzan edo arbola baten kerezpean irakurteko liburu aproposa.

**Beatriz Azpiri Rementería**



**Susana Martín Gijón**

**Vino y pólvora**

**Debolsillo. Penguin Random House Grupo Editorial, 2024**

**400 orrialde**

TELEFONO INTERESGARRIAK

### Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
SOS DEIAK 112

### Guardiako farmaziak

**09:00etatik 22:00etara**

### Urri lehenengoaren 2tik 8ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1  
Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937

### 22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

### Urri lehenengoaren 9tik 15era

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g  
Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305

### 22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

### Urri lehenengoaren 16tik 22ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15  
Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908

### 22:00etatik 09:00etara

Gutierrez. Amorebieta-Etxano.

Zeberioako ez dau guardianik egiten.

### Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Gometza, Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

### Medikuak

**Arantzazu:** 94 600 74 63

**Artea:** 94 673 92 11

**Areatza:** 94 631 71 52

**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 680 19 74

**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16

**Ubide:** 945 45 03 61

**Zeanuri:** 94 673 91 49

**Zeberio:** 94 648 01 85

### Udaletxeak

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 05

**Areatza:** 94 673 90 10

**Bedia:** 94 631 42 00

**Dima:** 94 631 57 25

**Igorre:** 94 631 53 84

**Lemoa:** 94 631 30 05

**Ubide:** 945 45 03 22

**Zeanuri:** 94 673 91 46

**Zeberio:** 94 648 10 79

### Arratiako Udalen

**Mankomunitatea** 94 631 17 17 /

[mankomunitatea.arratia@bizkaia.org](mailto:mankomunitatea.arratia@bizkaia.org)

### Gorbeialde Landa

#### Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / [gorbeialde@gorbeialdea.com](mailto:gorbeialde@gorbeialdea.com)

**Areatzako Parketxea** 94 673 92 79

**IKE** 94 673 62 51 / [kulturetxea@igorre.net](mailto:kulturetxea@igorre.net)

**Euskotren** 94 433 33 33 / [euskotren.eus](mailto:euskotren.eus)

**Areatzako Notarioria** 94 673 92 26

### Errota Fundazioa

688 854 543 / [info@erota.eus](mailto:info@erota.eus)

### Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / [www.arratiakomusikaeskola.eu](http://www.arratiakomusikaeskola.eu)

### Bizkaibus 94 612 55 55

#### 3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

**Bilbotik.** Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era ordu. Jaiegunetan orduo 07:15etik 22:15era.

**Zeanuritik.** Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduo: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan. Orduo: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduo.

#### 3911 Linea. Bilbo-Galdakoa-Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

**Bilbotik.** Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara orduo. Zapatu eta domeketan Durangoraino.

**Elorriotik.** Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduo.

**Durangotik.** Lanegunetan: 07:10etik

21:10era orduo. Zapatuetan: 06:30etik

21:30era orduo. Jaiegunetan: 07:30etik

21:30era orduo.

#### 3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

**Bilbotik.** Lanegunetan: 06:30etik 22:30era orduo. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era orduo.

**Eibartik.** Lanegunetan: 06:00etatik

21:00etara orduo. Zapatuetan: 06:20tik

21:20ra orduo.

Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduo.

#### 3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

**Bilbotik.** Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduo.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

**Ubideetik.** Lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordu behin.

\* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urtetan

diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

**Otxandiotik urtekerak.** Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduo.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduo.

#### 3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)

**Bilbotik.** Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduo. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Zeanuritik.** Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduo. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

#### 3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

**Zeberiotik Ugaora.** Lanegun eta

zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10\*, 11:00;

11:45\*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30\*, 20:20.

\*Basauriraino bakarrik.

**Basauritik Zeberiora.** Lanegun eta

zapatuetan: 10:00, 12:45\*, 19:20.

\*Artearaino bakarrik.

**Ugaotik Zeberiora.** Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

**Arteatik Ugaora.** Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

**Ugaotik Artea.** Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40.

**Igorretik Ugaora.** Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.

**Ugaotik Igorre.** Lanegun eta

zapatuetan: 07:20ean.

**Zeberiotik Arrigorriagara.** Jaiegunetan:

08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

**Arrigorriagatik Zeberiora.** Jaiegunetan:

10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

### La Union 94 427 11 11

#### Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandiokoak 16:00etan. Zapatuetan:

Ubidekoak 09:00etan urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

#### Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urtetan dau Gasteizetik eta Otxandiokoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau

Gasteizetik.

**Argitaratzailea:** Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus). **Webgunea:** [www.begitu.eus](http://www.begitu.eus). **Zuzendaria eta publizitate arduraduna:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** [inigoirua@begitu.eus](mailto:inigoirua@begitu.eus). **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** [beazpiri@begitu.eus](mailto:beazpiri@begitu.eus). **Erredakzino arduraduna:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** [asierabrisketa@begitu.eus](mailto:asierabrisketa@begitu.eus). **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga. **Banaketea:** Garbikuzi enpresa (Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberio), Asier Abrisketa (Igorre), Jokin Totorika (Arantzazu, Areatza eta Artea) eta Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearnak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikatu, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatzu eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatuzeko.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

### Babesleak:



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

## ZEURE BERBEA

### Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskertronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea  
BEGITU aldizkaria  
Herriko Plaza 24  
48142 Artea  
Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutuna:  
[begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus)

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidea.

## Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

### Hitanoagaz hasteko aholkuak (LI). Kale berbakunea sustatu guran

#### MARIJAIA

- Zer **jak** ba Julian?
- Ezer barririk ez.
- Ba ni Bilbon izan **nintzoan** txupinazoan!
- Oindino moltsoan ibilteko gogoa **eztok** galdu orduan! Zelan **jabik** Marijaia ba?
- Guapa guaparik ikusi **ñoan**!
- Eta pregoia entzun **hindun** ala?
- Bai, aurtan Itziar Ituñok emon **jok**. **Ezto** entzun bideoan edo?
- Ez, **etxoat** entzun.
- Ba **entzuik** interesantea **dok** eta.
- Eta zeren gainean egiten **jok** berba?
- Ba gauza asko aitatu **jozak**.
- Ea ba entzungo **joat** orduan.

## ERETXIA

### Venezuelako errealidadea

**M**anipulautako "errealidadea" ezarri gura dauan gerra kognitiboari aurre egiteko, araudia eta hauteskunde sistemearen azterketea.

#### Lehenengo zatia:

1. Venezuelako hauteskunde prozesua %100 automatizauta dago.
2. Bozketa, zenbaketa eta totalizazio prozesuen softwarea alderdi politikoen eta behatzaileen parte-hartzeagaz ikuskatu eta ziurtatzen da.
3. Botoa, zenbaketa eta totalizazioa elektronikoa dira.
4. Boto-makinak hautesleari egiten deusn inprimakia eta boto kontaketearen unean egiten dauana, herritarren kontu-ikuskaritzarako egiaztagiriak dira. Herritarren ikuskaritza hauteskunde mahai guztien %54an egin zan.
5. Totalizazioa automatizaua da, elektronikoa, eta totalizazio horren gainean esleitzen eta izentatzen da botoen gehiengoa daukan hautagaia. Ondorengo 48-72 orduen barruan egiten da.
6. Hauteskunde Kontseilu Nazionalak (HKN) 30 egun ditu emaitzak Hauteskunde Kazetan argitaratzeko.
7. HKNk beti argitaratu izan ditu emaitza totalizauak eta mahaiak zehaztuak, Hauteskunde Kazetan behin betiko argitaratzeko dituan 30 egunak baino lehen.
8. HKNk salatu dau, bere webgunea asmo txarrez blokeatu ebela, hackeatuz, eta sistemearen kontrako eraso masibo bat be salatu eban, emaitzen totalizazioa eragozten eta moteltzen saiatzeko.
9. Totalizazioa, esleipena eta barri emotea HKNk egin ebazan.
10. HKNk ez dauka zertan boto zenbaketearen akten kopiak argitaratu, egiaztagiriak baino ez diralako. Zenbaketa automatizaua argitaratuko da.
11. Egindako boto zenbaketearen aktak, automatikoki egindako boto zenbaketearen egiaztagiria,



**ZULAY GIL**  
Kazetaria

herritarren egiaztapenaren gaineko aktak eta mahaiak eratzea, HKNren babesean geratzen dira, eta Justizia Auzitegi Nagusiaren kontrako inpugnaziorik egon ezker, emoten dan administrazio espedientea osotzen daben hauteskunde material frogagarria da.

11. Logikoa danez, webgunea hackeatua ez izateko behar dan segurtasunagaz aktibetan danean, emaitzen totalizazioa eta disgregatuak argitaratuko diralakoan nago.

12. Barrero dinot: guzurra da emaitza totalak edo disgregauak argitaratzeko denpora tarteren

bat gaintu izana.

13. Prozesuaren edozein unetan, bizioak edo iruzurra dagozala uste dauanak Justizia Auzitegi Nagusira jo leike.

14. Boto zenbaketearen akten kontra egin gura dauanak, atzera boto gura dan aktearen ziurtagiria eskatu behar jako Hauteskunde Kontseilu Nazionalari, legekoa izan daiten Podere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren aurrean.

#### Bigarren zatia:

Lehen zatian puntu batzuk aztertut ondoren, indarkeria justifiketako inposatu gura dan errealidade horren azterketeagaz segiduko dot.

1. Inork ezin ditu HKNren funzioak usurpau, Maria Corina Machado eta Edmundo Gonzalez Urrutiak egin daben moduan, eta hori nazinoaren aurkako delitu larritzat jo daiteke, subiranotasunari eraso egiten deusalako.

2. Boto zenbaketearen akten argitaratzearen gaineko presino muturrekoa, ilogikoa eta hauteskunde-arauan ezarrita ez dagoana, nazino ezegonkortuko daben ekintza terroristak sortzeko planaren ondorio da. Barrero dinot: HKNk ez dau mahaiko emaitza guztiak argitaratzeko denpora tarterik gaintu.

3. Egiaztatuta ez dagozan norbanakoek ustezko Zenbaketa Akta batzuk argitaratzea, eta horren gainean ustezko emaitzak kalkulatzeko eta iruzurra salatzea, Justizia Auzitegi Nagusiaren aurrean aurka egin barik, gerra kognitibo planari zor jako. Honek imaginario kolektiboan errealidade bat sortu gura dau, frustrazioa sortzeko eta indarkeriari eusteko.

4. Lasaitasuna eta zuhurtasuna, gerrako zenbait teoria militarretan oso ondo egokitzen dan eraso inperial honen aurrean.

Demokrazian logikoena eta instituzionalena, Zenbaketa Aktak edo totalizazioa inpugnau gura dauanak, HKNri ziurtagiria eskatzea litzateke, eta horreekaz hauteskunde prozesua edo totalizazio fasea Justizia Auzitegi Nazionalaren aurrean inpugnatzea.

**\*Erredakzinoan itzulia**



## LUMATUTEN

MAITE ARTABE  
URKIRIZahartzaroan be  
ideologia

**E**ntzun neutsan Arantxa Urretabizkaiari ideologia falta jakula zahartzaroaren inguruan.

Holan da, historiak 30 urte inguru oparitu deuskuz gure sasoikooi eta horretaz pentsau eta aldi horretarako ideologia sortu beharra dago; dana data azken finean politika baita gure egunerokotasuna be.

Lehenengo-lehenengo onartu beharra daukagu zahartzaroak dagozala, anitzak garala zaharrok be, orokortasunari jagokozanak ez jagokozala errealdadari.

Eta errealdadari begira jarrita ikusten dot aniztasun horretan erabakiorra dala kobretan dan pensioarena.

Ahaztu barik ezer kobretan ez dabenen egoera: hainbat andra zaharrek ez dabe ezer kobretan euren gizona bizi dan artean eta gero be alargunen pensioak dira bajuenak.

Persona horreek guztiek euren familia eta ingurukoak zaintzen bizitza emon ondoren, sistemeak agindutakoari egoki men eginez, zahartzaroan po-break izango dira Dekretuz.

Beraz, neu be andra zahar nazan aldetik, alkartasunez 65 urtetik gorakoentzat pensino unibersala eskatzen dot, baita etxekoandre izan diranentzat be. Gurako neuke gitxiengo soldata interprofesionalaren erreibindikazino hori hasi daite-la zabaltzen gizartean ideologia iturri diran eragileen aldetik (partidu politiko, sindikatu, herri mobimentu, mobimentu feminista...).

Jakina bestelakorik be badaukat zahartzaroaren inguruan esateko baina katalanek esaten daben moduan "*primer els diners i després ja en parlarem*"; derrigorrezkoa da-ta soldata hori gure zahartzaro onerako behar doguzan libertade, dignidade eta justizia lortzeako.

## ZERTZEAN



## Zuri

## MAITE ARRIZABALAGA

**G**orroto zaitut ahaztuak nituen sentipenak berpiztu dizkidazulako gorroto zaitut barrena astindu didazulako gorroto zaitut benetan nire burua gorroto dudalako honainoko bidea nik neuk erakutsi dizudalako.

Gorroto nahi zintuzket, pentsamenduetako zirrikitu estuenetatik atera, baina nire buruari uko egitea litzateke egiari gezurra esatea.

Distantzia deus ei da orduan, urrun nahi zaitut.

Denborak ezer zendatzen badu, heldu nazala, zu, oroitzen lauso bihurtzeko eta, orduan, lasai egin ahalko diot nire buruari uko orduan, ez dut zu gorrotatzeko beharrik izango.

\* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITU argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidean.

## BEGI TXINDORRA

**B**este kontinente baten ateratako argazkia izan eitekean Arkaitz Bilbaok Udako Argazki Lehiaketerako bialdutakoa, paraje paradisiakoa erakusten dau-ta; baina ez, hemendik hur, Urdaibain ateratakoa da. Izan be, hegazkinez, autoz, trenez zein bizikletaz egindako bidaia luze zein txikietan topau daiteke paradisia. Mundu zabaleko paradisuaren bilduma txikia izaten da Udako Argazki Lehiaketea.

Lehiaketan parte hartzeak, eta leku eder horreen argazkiak BEGITUren irakurleakaz konpartiduteak, saria euki leike; izan be, irabazleak astegoiaren bat landetxe baten izango dau sarizat. Parte hartzeako, urri lehenengoaren 25a baino lehen bialdu behar dira argazkiok [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera; hiru gehienez. Egilearen datuez gainera, argazkia, non eta noz atera dan adierazo behar da.



**Gorosti**  
LORAZAINTZA  
Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
[gorosti@gorostisl.com](mailto:gorosti@gorostisl.com)

**BEER & EDARIAK**  
Guillermo 659 48 28 39  
Fernando 699 29 67 17 Arkaitz 677 46 40 91  
Eduardo 647 72 96 24 Golder 666 58 20 06  
Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • [beeredariak@gmail.com](mailto:beeredariak@gmail.com)

**agoa**  
hagin klinikak  
Marina Urigoitia Aldekoa  
Odontologia  
Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika  
Bidebarri 1. behea  
48140 Igome-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Idazgela Zerbitzuak 101  
R.P.S. 31/06

ARTEA

## Akerbeltz, Badagiro, Eire eta Zutik taldeek animauko dabez Arteako jaietako gauak

Urri lehenengoaren 5ean, 18:00etan, botako dabe txupina eta jaiiei hasikerea emongo deusie Artean. Orduetik eta lau egunetan ez dira faltauko erromeriak, Tortilla Txapelketea eta mozorro gaua, besteak beste.

### Erredakzioa

Zapatu gauean, Eire zumaiar bikote gaztearen pop elektornikoagaz gozatuteko aukerea egongo da. Erromeria ugarik osotuko dabe jaietako musika eskaintzea, Akerbeltz, Zutik eta Badagiro taldeakaz.

### Urri lehenengoak 5, eguena

18:00etan, jai hasikerako txupina, herri jantzea eta buruhandiak. 18:30ean, Etxebarria aita-eme

trikitolariak.

22:00etan, herri afaria eta bingo musikatua.

### Urri lehenengoak 6, barikua

18:00etan, Eidabe konpainiaren umeentzako antzerkia: *Gora Bihotzak!*

19:30ean, indakeria sexistarik bako gunea.

20:00etan, RocKalean elektrotxaranga.

21:00etan, taloak.

23:00etan, erromeria Akerbeltz

taldeagaz.

### Urri lehenengoak 7, zapatua

11:00etan, umeentzako puzgariak eta jolasak frontoian.

13:30etik 14:00etara, Tortilla Txapelketea.

20:00etan, Mozorro Desfile Txapelketea udaletxetik plazara.

22:00etan, Eire taldearen kontzertua.

24:00etan, erromeria Zutik taldeagaz.

03:00etan, DJ Kuku eta Kene.

Mozorro gaua: musikea.

### Urri lehenengoak 8, domekea

12:00etan, mezea.

13:00etan, Zirkozaurre konpainiaren *Harreman* ikuskizuna.

18:00etan, erromeria Badagirogaz.

20:00etan, txokolata.

### Urri lehenengoak 14, zapatua

18:30ean, Bizkaiko Ardi-txakurren Txapelketea Alderdi Etxean.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

## Abentura, kultura eta gastronomia jarduerak antolatu ditue Gorbeian

Gorbeia Euskadik eta Gorbeialde Landa Garapen Alkarteak naturaren erdian esperientziak eskaini gura deusez Gorbeia udan gozatu gura dabenei. Hori dala-ta, bisitaldi gidatuak, aire zabaleko jarduerak, museoak eta gastronomia eskaintzen dira natureagaz eta lekuko kultureagaz konektetako.

### Erredakzioa

Dimako Antzasti museoan bisita gidatuak; Areatzan eta Diman gida batez zein audiogidakaz bisitea; mendi ibilbideak oinez eta bizikletaz, eta abentura parkeak dira eskaintzen diran aire zabaleko jarduera batzuk.

### Museoak eta bisita gidatuak

Antzasti museoak, beste bizimodu baten murgiltzeko aukerea emoten deutse bisitarietara: XIX. mende amaiera eta XX. mende hasikerako baserri tradizional eta etxe modernoak ezetuz. Bisita gidatua erreserbau daiteke 628 322 275 eta 657 704 207 telefonoetan.

Bisita gidatuei jagokonean urri lehenengo honetan, 5 dagoz aurreikusita. Hilaren 8an, Undurragako urtegiari bueltea; 15ean, Otxandion mendiko bizikleteagaz herria ezagutu; 21ean, Arteako historia San Migeletik; 22an, Areatzako uribildua ezetu eta 29an, Ubideko antxinako kaltza-

dea ikusi eta haren barri izateko aukerea egongo da.

Audiogidakaz bisitak egiteko aukerea dago Diman eta Areatzan. Holan, Dimako natura eta ingurune mitologikoa eta Areatzako urigunearen zehaztapen guztien barri euki daiteke edozein momentutan QR bat eskaneauta.

### Beste esperientzia batzuk

Abenturazaleek hainbat aukera ditue naturaz beste modu baten gozateko. Esate baterako,

Hontza Extrem abentura parkean, dibertimentua eta abenturea buztartu leikie, *hontzaextrem.com* webgunean erreserba egin da. Gorbeia Euskaditreken barriz, neurriari egindako mendi ibilbide bat prestatuten dabe. Eta parapentean salto egiteko aukerea eta Gorbeia aterpean egoteko aukerea be badago; informazioa <https://gorbeiaeus-kadi.com/deportes> eta <https://gorbeiaeus-kadi.com/aventura-en-gorbeia> esteketan hurrengo hurrengo.



LEMOA

## Elizondok Andra Mari jaiak ospatuko ditu



Kittu taldeko kideak.

### Erredakzioa

Hilaren 8an, Andra Mari egunean, mezea, jantzak, musikea herriatik eta antzerkia egongo da Kulturguneko plazan. Aurten, Mikel Martinezek eta Patxo Telleriak *Ez dok hiru! Akustikoa* antzezlanak ekarriko dabe, umorez, euskal musikearen beste istorio bat eskaintzen dauana.

Bezperan, bertso-bazkaria egongo da Kulturguneko plazan. Amets Arzallus eta Aroa Arrizubieta izango dira bertsoak kantatuko dabean bertsolariak. Bazkalaurretik eta iluntzean poteo musikatua egongo da.

### Urri lehenengoak 7, zapatua

13:00etan, poteo musikatua Arratiako Musika Eskolako trikiti-

lariakaz.

15:00etan, bertso-bazkaria. Bertsolariak: Amets Arzallus eta Aroa Arrizubieta. Kulturguneko plazan, euria bada eskolako aterpean. Txartelak udaletxean salgai hilaren 4ra arte.

19:00etan, poteo musikatua Txerokiak taldeagaz.

### Urri lehenengoak 8, domekea

12:00etan, meza nagusia Andra Mari eleizan; ostean, Durundi Barri Dantza Taldearen ekitaldia.

13:30ean, Kittu musika taldea herriatik.

19:00etan, Mikel Martinez eta Patxo Telleriaren *Ez dok hiru! Akustikoa*. *Euskal musikaren benetako istorioa* antzezlanak Kulturguneko plazan, euria bada Kotxepin Kultur Etxean.

## IGORRE

## Howdy Bluegrass eta Triple Zero taldeek joko dabe motorzaleen konzentrazioan



### Erredakzioa

Hilaren 6 eta 7an, bariku-zapatuan, Arratia Motor Taldeak antolatuta, hitzordua daukie inguruko motorzaleek, hogeta laugarrenez Igorren batzeako. Aurten be, zuzeneko musikea, jana, edana eta Arratiatik motor ibilaldia ez dira faltauko.

Konzentrazioa, bariku iluntzean hasiko da 20:00etan, partaideei harrerea eginez. Ordu horretan txosnea eta izen-emotea zabalduko dira. Ostean, 21:00etan taloa txorizoagaz izango da afarilegea eta gauerdian zarratuko da txosnea.

Hurrengo egunean, zapatuan, izango da motorren festa. 10:00etan zabalduko dira barriro txosnea eta izen-emotea eta 12:00etan ekingo deusie Arratiatik ibilaldiari motorzaleek. 14:00etan, marmitakoa janda indarrak berreskuratu eta gauerdia arte luzatuko dan jaia hasiko da: 16:00etan, motor jolasak eta urdaiazpiko zozketea. Ostean, 18:00etan, zilindrada handiko motorrakaz akrobazia erakustaldia egongo da espezialista baten eskutik.

### Howdy Bluegrass

Howdy Bluegrass talde donostiarrak 20:00etan joko dau. Taldea

2012an sortu zan eta Jon Arzelusek (kontrabajua), Urbil Artolak (dobroa), Jose Mari Pulidok (banjoa), Julen Maestrok (trikia) eta Julen Arranzek (gitarrea) osotuten dabe. Euren ibilbidean jaialdi askotan jo dabe; tartean, Donostiako Jazzaldian eta disko bat daukie kalean.

Bluegrass musikea, tradizioan oinarritutako estilo modernoko hari-instrumentuko bandek egiten dabe. Bluegrass estiloak AEBko antxinako mendiko musikea, bibolin plaza jantzakoa, blues, gospel, jazz eta musika herrikoia elementuak batzean ditu.

### Triple Zero

Arratiako Motor Taldearen konzentrazioa kontzertu bien artean, 20:30ean, parrilladea egongo da eta 21:30ean hasiko da Triple Zeroren emonaldia. Bluesean oinarritutako rock sudista egiten dau talde honek, rock eta hard rock zaleen gustukoa. Inigo Garridok (ahotsa eta gitarrea), Aitor Ruizek (bajua), eta Alex Fernandezek (bateria) osotuten dabe taldea. *Brothers* izeneko diskoa daukie kalean.

Gaueko hamabietan emongo deusie amaiera aurten gozotzaleen konzentrazioari.

## UBIDE/ZEANURI

## Ubidek eta Zeanurik Idazkari lanpostua konpartiduteko alkartea desegin dabe

Udaleko Idazkari-kontuhartzailea konpartidu izan dabe Ubidek eta Zeanurik baina horretarako eukien alkartea desegin dabe.

### Erredakzioa

Zeanurik bere idazkaria izango dau, Ubidek, barriz, lanaldi erdian

Arakaldogaz konpartiduko dau idazkaria eta lanpoltsatik topau beharra dago.

Garagarriaren 15ean, Zeanurik

etako eta Ubideko udalerriek eskatuta, Idazkaritzako lanpostu bakarra bien artean mantenduteko eraturako alkartea desegiteko ebazpena emon eban Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendariak eta abuztuaren 2an argitaratu zan Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Martian ebatzi eben udalerririk, Idazkaritzako lanpostua alkarren artean mantenduteko eraturako alkartea desegiteko prozedura hastera.

### Zeanurik bere Idazkaria izango dau

Udalerririk guztietan Idazkari-kontuhartzaile lanpostua egon behar dan arren, zerbitzu edo baliabide urrikoek alkar baten bilduta, ordaindu daikie lanpostu hori eta Idazkaria konpartidu. Hori egin eben Zeanurik eta Ubidek eta hori egiten saiatuko da Ubide beste herriren batez. Zeanurik barriz, Idazkari lanpostua osorik ordainduko dau.



## BEDIA

## Bediako tren geralekua barriztatzeko obrak lizitazinora atera ditu Euskal Trenbide Sareak

Bediako tren geralekuan trenbide pasagunea kendu eta aparkaleku barria egiteko lanak lizitazinora atera dauz Euskal Trenbide Sareak, Eusko Jaurlaritzaren Mugikortasun Jasangarriaren Sailaren menpeko erakunde publikoak.

### Erredakzioa

Lehiaketan parte hartu gura daben enpresek urri lehenengoaren 9ra arte daukie epea proiektuak eta dokumentazioa aurkeztuteko. Lan horretarako 3,1 milioi euroko aurrekontua eta 12 hilebeteko epea aurreikusten da.

Nasen arteko trenbide pasagunea kendu eta oinezkoentzako pasabide bat ipiniko da trenbidearen gaineratik, hegoaldeko nasara sartzeko, Bilborako norabidean.

Aparkalekuak barriz, 2.150 metro koadroko azalera eukiko dau eta dagozan nasen kota berean proiektatu dago, geralekurako

irisgarritasuna hobetuteko. Guztira 41 plaza eukiko ditu; lau plaza ibilgailu elektrikoentzako izango dira, kargeagaz prestatuta, eta beste bi mobikortasun urriko per-

sonentzat. Bizikletak aparketako gune bat be egongo da.

Egonaldietarako eraikin bat eregiteko asmoa be badago. Eraikinak hiru gela eta atari nagusi bat eukiko ditu, eta haren alde banatan, 9 metro koadroko gela bana, geltokiko buruaren egonaldietarako beste; azken horrek behe-tensinoko koadroa, komunikazio-armairua eta teleginteko beste ekipo batzuk hartuko ditu barruan. Atarian, txartelak saltzeko eta baliozkotzeko makinak ipiniko dira.



ZEANURI

## Basilio eta Enrike Etxebarria dultzaineroak omendu zituan Bizkaiko Gaiteroak alkarteak

Jon Urutxurtu

Enrike Etxebarria eta bere aita Basilio (+) omendu zituan Bizkaiko Gaiteroak alkarteak abuztuaren 15ean, Zeanurin.

Goizean, Zeanuriko Udalak eta Bizkaiko Gaiteroak alkarteak antolatuta, dultzainari buruzko argazki erakusketea egon zan ikusgai plaza pelotalekuan eta dultzaineroak eta Markina-Xemeingo erraldoiak herriguneko kaleak animau ebezan kalejirea eginez.

14:00etan, izan zan Enrike Etxebarria eta bere aita Basilio dultzaineroak omentzeko ekitaldia. Bizkaiko Gaiteroak alkarteko Jon Gamindek eta herriko alkarteak emon eutseezan oroigarriak Enrikeri eta bere ahizta biri, aitarren ordezeko moduan. Oroigarria jaso ostean, Enrikek dultzaina hartu eta hiru-lau pieza jo ebazan.

Basilio Etxebarria (1899-1982) Uribeko Zuloa baserrian jaio zan eta auzune bereko Lexartza baserrira ezkondu zan Felisa Lejarzagaz, 1929. urtean. Ofizioz artzaina izan zan Gorbeian, baina dultzaina be jotzen eban auzuneetako erromerietan. 1960. ur-

tetik Arrabako aterpea jagoteaz be arduratu zan.

Enrikek (1943) aitaren lanbideari eta afizioari jarraipena emon eutsan: ofizioz artzain eta afizioz dultzaineroa. 14 urte gaz, artzain lanetan hasi zan aitagaz eta 1992. urtera arte Arrabako aterpearen ardura be eroan eban.

Bizkaiko Gaiteroak alkarteak, Gureak gogoan, kateak ez hausteko lelopean, zortzi gaitero gogoratuko ditu aurten: Juan Bilbao, Mañarian; Patxi Bilbao, Diman; Juan Aiesta, Bedian; Teofilo Maruri, Aulestin; Lucas Sainz Matxakito, Zallan; Basilio eta Enrike Etxebarria, Zeanurin; eta Simeon Iragorri, Usansolon.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

## Ernaik deitutako Donostiako manifestazinora joateko autobusa egongo da Arratiatik

Mozal legea aplikauta, Ernaiko 133 kideri 1.500 eta 2.500 bitarteko isunak ipini deutsie, guztira 290.500 euro, 2023ko urri lehenengoan, Bilbon eta Gasteizen Galder Barbado eta Aitor Zelaiaren kontrako espetxeratze agindua salatzeke protestetan parte hartzeagaitik.

### Erredakzinoa

Hori dala-ta Ernaik manifestazinora egingo dau hilaren 8an, 13:30ean, Donostiako Bulebarean hasita, Bat eginez indendentziara lelopean.

Arratian 10 personari ipini deutsie isuna, guztira 24.000 euro. Bederatzik Bilboko protestetan hartu eben parte eta batek Gasteizkoan. "Ebatzi konsensuaua dala ulertuten dogu; hau da, gazteria indendentista zapalduko eta erasotutako" azaldu deutsie BEGIRURI Emaitik.

### Autobusa

Manifestazinora joateko autobusa Igorreko geralekutik urtengo da 11:00etan eta manifestazinora ostean, bueltako autobusa, 19:00etan urtengo da Donostiatik.

Izena atzen egunerarte edo autobusa bete arte emon daiteke Igorreko Axular Herriko Tabernan 10 euroren truke edo Bizum bidez, kartelean dagoan telefono zenbakira 10 euro bialduta.

Isunak pagetako dirua batzuan dago Ernai. "Alde batetik,

crowdfunding kanpaina bat dago kontu korronte zenbaki batera dohaintzak egin ahal izateko; eta beste alde batetik, boletoak, kamisetak, abanikoak eta abar saltzean doguz. Arratian atera doguz katilu batzuk be, Igorreko Herrikoan salgai dagozanak 7 euroren truke".



IGORRE

## Herri-hornigarrien barriztatze lanak egin dauz Igorreko Udalak

### Erredakzinoa

Bidebarri parkeko lanak abuztuaren 6an hasi ebazan Udalak eta, aurreikusita egoan moduan, hurrengo astean amaitu ziran. Zibu barriak ipini eta jolas eremuko lurzorua aldatu dabe eta lan ho-

neekaz, guztiz barriztu dabe plaza. Hainbat urte eukiezan hango txirrista, zibu eta osterantzekoek; barriakaz, plaza seguruagoa eta erakargarriagoa da, ume eta nagusiek erabili dagien.

Herri-hornigarriak erabilgarriago egin dituan beste lan bat be

egin dau Udalak abuztuan. Izan be, anbulategiko plazan harrizko eserlekuen zati bat egurrezko eserlekuak estali ditu erosoak izan daitezkan.



Gora Andra Mariak!

Arteko Udalak eta Jai Batzordeak  
JAI ZORIONTSUAK  
OPA DEUTSUEZ

Euskara eroso bizitzeko

**aek** euskara praktikoa

**Arratiako AEK**  
EUSKARA-IKASTAROAK  
Matrikula zabalik

- Maila guztiak, azterketa ofizialak: A1-A2-B1-B2-C1-C2
- Orduzabalak

Elxalde 10, Igorre  
94 631 56 57 / 607 632 916 · arratia@aek.eus

**DIRULAGUNTZAK**

Eusko Jaurlaritzak, maila egiaztatuz gero. Arratiako udal guztiek diruz lagunduta.

## INBIU

# Euskerearen aldeko giza mosaiko erraldoia izango da Inbiu egunaren ardatza

Urri lehenengoaren 21ean izango da aurten Igorreko euskerearen eguna, Inbiu eguna. Euskerearen aldeko giza mosaikoak, herri bazkariak, Eingoren emonaldiak eta Orkresta elektrotxarangeagaz kalejireak osotuten dabe egun horretako egitaraua.

Urte batzuetan jai apalagoak egin ostean, aurten Udaleko Euskara Zerbitzuak ilusinoa errekuerau eta euskerearen aldeko motibazioari bultzada handia emotearen aldeko apustua egin dau.

## Erredakzioa

Herri erronka handia izango da giza mosaiko erraldoia, ehundaka personeren parte hartzea eskatzen dauana eta lurretik eta airetik, drone bategaz, grabauko dana.

Giza mosaiko erraldoia gidatuko dauan Katuska ta Katiluko Idoia Zuluaga Martinek esperientzia dauka jentetza mobiduten daben ekintzak kudeatzen. La Hacerian zuzendari izan zan eta antzerkia, performance-ak eta zinema arloetako ikuskizunak kudeatu ditu.

## Katuska ta Katilu enpresek gidatuko dau giza mosaiko erraldoia...

Urri lehenengoan kooperatiba bihurtuko da eta KtK izena hartuko dau, Katuska ta Katiluren siglak. Iniziatiba sozial eta solidarioko kooperatibea izango da. Nomenklatura hori emon behar deusue baina guk eskatuko dogu. Hau da, printzipioz kooperatibea izango da eta saiatuko gara iniziatiba sozial eta solidariokoa izan daitela. Inbiu egunerako, Katuska ta Katilu, KtK kooperatibea izango da.

KtK-k hiru erro ditu: bata de feminismoa eta horregaz zaintza, bai barneko kudeaketan, hau da gure artean eta bai egiten doguzan lanetan egoten da; bestea da ekologia, zentzu askotan, eta hirugarrena euskerea da.

**Zu arte eszenikoetatik zatoz, ezta? Hezkuntza eta arte eszenikoetatik Katuska ta Katilu, gero KtK izango dana.**

Bai. Hori da. Nik Arte Ederrak ikasi eta produkzioan masterra egin neban, proiektu potoloen kudeaketea aurrera eroateko. Hori izan da niri ibilbidea eta hortik joan da Katuska ta Katilu. Inbiu egunean egingo dogun giza mosaiko erraldoia aurrera aterateko jente askoren parte-hartzea da garrantzitsuena, eta Katuska ta Katilun hainbat aliantza daukaguz enpresa desbardinakaz horretarako. Esate baterako, Txaloka Antzerki taldeagaz lan asko egiten doguz eta talde horretakoak

*Gure euskerearen aldeko apustua oso argia da.*

*Erreibindikazino oso jatorrizkoa da, eta zeharka hartzean ditu gai guztiak. Bardin da zer erreibindikau, euskeraz egiten dogu.*

*Euskereagaz bultzatzen dogu bertokoa dana, gurea dana eta geu garana*



Idoia Zuluaga Martin.

izango dira hankapaluak eroango dituen aktoreak.

Gero be egiten dogu lan Lux zinema ikus-entzunezkoen ekoiztetxeagaz. Inbiu honetan grabauko da eginkizuna eta hori sano garrantzitsua da. Zineman eta EITBrako lanak egin ditue euren ibilbide luzean eta ildo artistikoa daukie. Niri zuzendari legez, alde artistiko hori sustatzea interesetan jata. Ez bakarrik teknikoki ona izatea, grabaketearen alde artistikoa be sustatzea gura dot eta hor dago Alberto Vegas zuzendaria hori holan izan daiten.

Aerozoom enpresek egingo dau lan dronakaz. Enpresa horrek grabau eban gabarra airetik. Bi enpresek baino ez eben aukerea izan gabarrea dronakaz grabetako eta bat Aerozoom izan zan. Taldea majoa da.

Ibergraficak egingo dauz arlo horretako lanak... Izan be, Katuska ta Katiluk beti egiten dau lan aliantzan.

Hori barruko antolakuntzeari jagokonean, baina garrantzitsuena jentearen parte-hartzea da eta hor sartu dogu guk energia, eta hor dago gure benetako lana.

Zelan inplikau eskolea, institutua, alkarteak... Hemen Igorren sekulako gizarte mailako mobimentua dago eta horreen partaidetza garrantzitsuena da.

**Zer dala-ta edo zelan izan zan Igorreko Udalak zuek kontratetea Inbiu eguna antolatzeke?**

Gure euskerearen aldeko apustua oso argia da. Erreibindikazino oso jatorrizkoa da, eta zeharka hartzean ditu gai guztiak. Bardin da zer erreibindikau, euskeraz egiten dogu. Euskereagaz bultzatzen dogu bertokoa dana, gurea



dana eta geu garana.

Udaletatik deitzen deuskue eginkizunak euskeraz egiten doguzalako. Hemen, Igorren egin dogu lan aurretik. Euskaraldian hasi ginan. Ikusi genduan ez zala ulertzen oso ondo zer zan Belarriprest eta zer Ahobizi. Eta pentsau genduan produkzio bat egitea hori argitzeko.

Euskerearen aldeko ginkanea be egin dogu Igorreko jaietan. Eta oso ondo atera zan. Jenteari erakargarriago egiten jako euskerea jolasen bitartez sustatzea. Guk hori oso argi daukagu eta, askotan, udalak interesatuta egoten dira.

### **Zelangoa izango da Inbiu eguneko giza mosaiko erraldoia? Esaldi bat egingo da?**

Esaldia... Euskara berbea sortuko dogu. Hori bai.

Guretzat parte-hartzea oinarritzakoa danez, gazteen parte-hartzea sustatzea gustauko litxakigu eta Arratia Institutuan hizkien parte bat egingo dabe. Euren ebatziko dabe euskara berbeaz aparte zer ipini.

Eta idea da, estatikoa ez izatea, zeozer mobikorra izatea.

### **Orduan, euskara berbea egingo da eta horrez aparte, beste berbaren bat-edo, gazteek ebatziko dabena?**

Bai. Esan geinke mosaikoak parte bi izango dituala. Badagoz mosaikoak, adibidez Palestinako bandereagaz, oso estatikoak diranak. Gure eginkizuna oso kulturala da eta jaia egongo da azpian, Inbiu jaia gertatuko da. Eingo taldearen musikeak animauko dau eta hankapaluak eta antzerkia egongo dira... Hori grabauko da azpitik. Bigarren helburua goitik zer ikusten dan grabetea izango da.

Parte-hartzaileek, alkarteek, eta abar, gura dabezan jantziakaz, sarreratxo bat egingo dabe, artistikoa, bakotzak gura dauana: jantza taldekoek, jantzatxoren bat, esaterako.

### **Lip-dub baten antzera?**

Egin zan lip-dub-a oin urte batzuk. Ikaragarria izan zan. Oso espontaneo eta polita. Bai, holango zeozer gertatuko da giza mosaikoan be. Hori da gure helburua, bai. Beste modu baten, ze oingoan kamarea ez da mobiduko, persona izango dira mobiduko diranak eta grabazino mota desbardina izango da, baina hori da helburua, bakotzak oso modu laburrean aurkeztuko dau bere eginkizuna.

### **Ze paper jokatu dabe eta zer egingo dabe Zuztertxuk, galtzagorriek eta hankapaluak?**

Zuztertxu, zelan ez! Zuztertxu. Konpontzen gabiz panpina, hainbeste urtetan erabilia... Zuztertxu Igorreko euskerearen ikurra da eta asko maite dabe Igorrekoek, ez bakarrik txikiek. Zuzter-

txu atera dogunean beti izan da arrakastatsua. Berak eroango dau eginkizunaren ildo. Mikrofonoa Zuztertxuk berak eroango dau, baina galtzagorri baten laguntza izango dau.

Igorren oin dala hiru edo lau urtetik hona, gure eginkizunetan laguntzaile moduan ateraten dira galtzagorriak.

Gabonetan esaterako, galtzagorriak euskerearen bila atera ziran, ze Igorren euskereak beherakada handia izan dau. Oin %40 baino gehiagok erderaz egiten dabe. Esan daikegu, bira bat egin daua la Igorreko gaur egungo gizarateak, lehen euskalduna zan gehienbat eta oin ez. Eta inflexino puntu hori aldatu gura dogu barriro. Horretarako Gabonetan galtzagorriak atera ziran, diplomak bananduten eta "zu euskalduna zara?" "bai" "ba bultzatu mesedez..." esanez. Modu barregarri baten

baina atera ziran.

Hankapaluak be egongo dira eta Eingo taldeak girotuko dau ekintzea. Hankapaluen eginkizuna jentea animetea izango da. Umeek be hartuko dabe parte. Paper bat eroango dabe eta bertan irudia, berbak... Mosaikoko berbak alkarteek eta institutukoek egingo ditue eta eskolakoek paper zuriakaz hizkia garbituko dabe. Paper hori aprobetxauko dogu Zuztertxuren marrazki bategaz eta umeek margoztuko dabe. Fitxa bat izango da, artistikoa, nagusiek hitzez eta txikiek marrazkiz beteteko. Eta hori, abenduaren 3an, Euskerearen egunean egingo dan mural bategaz harremanduta egongo da.

Arratiako jentea oso parte-hartzailea da baina batzuetan behar dau kanal moduko bat, euskerearen aldeko gura hori adierazoteko. Eta guk hori erraztu

gura dogu. Holan, esate baterako, jubiladuentzako aulkiak eroango doguz. Galtzagorri bat joango da bila Eingoren musikeagaz aulkiak dagozan lekura lagunduteko. Seguruenik paperezko abaniko bat be eukiko dabe.

### **Ze ordutatik ze ordutara arte izango da giza mosaikoa?**

Ordu bi izango dira, baina gauza oso arina egin gura dogu. Lasarte parkean egongo dira jubiladuak eta umeak. Deitu doguz 12:00etarako eta hemen egongo dira olgetan, papera beteten, margozten... ipiniko doguz mahai batzuk eta tailerrak. Galtzagorriek 12:30ean jasoko dabez umeak hizkietan kokatzeko. Gero, gauza bera jubiladuakaz.

Alkarteak be 12:00etan deituko doguz baina jagokien lekuan bertan. Bakotzak izango dau eremu bat eta bere aurkezpenaren ensaioa egingo dau, gero ka-

marea datorrenean egiteko egin beharrekoa. Hizkiak ipinita dagozanean, joango gara ume eta jubiladuen bila eta kokatuko dira. Publikoa 13:00etan gehituko da. Kalea zarratuta egongo da eta kotxeak ezingo dira pasau. Zarratuta egongo dan parte horretatik joango dira sartzean, guk deitu ahala. Eta hurreratzen bada nonor deitu baino lehenago, itxaron beharko dau baina kanpoan. Kanpoan itxarotzea izan daiteke garagardao bat hartzean, esate baterako. 13:00etan sartuko dira eta Zuztertxu igongo da balkoira eta berbea hartuko dau.

Asmoa da hau danau 12:00etatik 14:00etara egitea, baina 13:30ean amaitzea, eta gero kalejirea egitea Inbiu jaiko jarraipenera. Hau da, herri bazkaria egingo dan Lasarte parkera. Danak etorriko dira: Zuztertxu, hankapaluak, musikariak... jentegaz.

## TRONTZEA

## Ruth Linazak Arabako Txapelketea irabazi dau

### Erredakzinoa

Ruth Linaza herri-kirolari lemoztarrak Garbiñe Lopez de Uraldegaz batera, Arabako trontzako txapela jantzi eban abuztuaren 7an. Bikoteak 10 pinu egur ebagiteko 3 minutu eta 44 segundoko denporea egin eban.

Txapelketea Gasteizko jaien barruan izan zan eta bost bikote neurtu ziran trontzan. Linaza eta Lopez de Uralderen ostean; Ane Aspe eta Eukene Martinez de Ereñu, Sara Jimenez de Aberasturi eta Maite de Felipe, Iranzu Urrea eta Amaia Jimenez de Viciña eta Maider Etxezabal eta Susana Sanchez

saillatu ziran hurrenkera horretan.

Arabako txapela lortzea poz handiz hartu dau Lemoakoak. "Txapelketa oso txukuna egin dogu. Euskal Herrikoan bigarren saillkatuta eta ama izan eta gero plazara itzulera dan honetan, sensazio nahiko onak nabil eukiten. Hori bai, entrenamentuetan asko sufridutea toke-tan da baina asiro-astiro lehenera bueltetan nabilela esan daiteke" azaldu deutso begituri Linazak.

### Arabako Trontza mistoa

Urri lehenengoaren 15ean, Arabako Trontza Mistoko Txapelketea jokatu dau Kimetz Lapazagaranegaz batera Legutian.



Ruth Linaza eta Garbiñe Lopez de Uralde.

## BOLA-JOKOĀ

## Luis Mari Goioaga nagusi Zeanuriko Txapelketan

### Jon Urutxurtu

Luis Mari Goioagak eskuratu dau 2024ko Zeanuriko Bola Txapelketea. Finala San Lontzon jokatu zan, abuztuaren 11n, eta bertan auzuneetan jokatu tako lau txapelketetako —Undurragakoa, Ipiñaburukoa, San Justokoa eta San Lontzo bertakoa— lehen lau saillkatuek hartu eben parte. Altzuan ez zan jokatu txapelketarik eguraldi txarraren ondorioz.

Luis Mari Goioaga undurragaztarrak jantzi eban txapela,

lauko jaurtiketa bategaz. Bigarren eta hirugarren lekuetan Gotzon Erkiaga eta Eusebio Larrazabal saillatu ziran. Finalera heldu ziran bolarien artean andrazko bat be egon zan, Dorleta Goioaga.

Zeanuriko bolarien hurrengo hitzordua Alzustan izango da urri bigarrenaren 5ean, San Migel jaietako egitarauaren barruan. Kofradien Arteko Taldekako Txapelketea jokatu da: udalerra osatzen daben zazpi kofradietako ordezkariak hartuko dabe parte, talde bakotxa lau bolarik osotuta.



Luis Mari Goioaga undurragaztarrak Zeanuriko alkateak emondako sariagaz. Argazkia: Jon Urutxurtu.

## TXIRRINDULARITZEA

## Aimar Marin Bustinza Junior mailako Bizkaiko Itzuliako txapelduna da

### Aimar Marin Bustinza Igorrekoak, Junior mailako

### Bizkaiko Itzulia irabazi eban garagarrean.

### Txirrindularia, Gasteizko Alimco Campagnolo taldean

### dago; AZEn hasi zan bizikletan, gero Zornotzan ibili

### zan eta oin Gasteizko taldean dago.

### Erredakzinoa

### Bizkaiko Itzulian podiumeko mailarik altuenera igon zara.

Bai, lasterketea garagarriaren 11tik 14ra ira zan, lau eguneko karrera bat, bost etapagaz, Balmasedan. Lehenengo egunean ehun kilometro inguruko etapea izan zan; bigarrenean antzera; hirugarren egunean, goizean, 70 kilometro eta arrastian kronoa, eta domekan egon zan beste etapa bat.

Bertan parte hartu eben Euskal Herriko taldeek, Espainiakoe, pare bat ekipo britaniarrek eta beste ekipo bi Frantziakoak. Guztira 200 txirrindulari inguru.

Prologue Race Team-eko Nathan Smith-ek egin eban bigarren eta Mx Loiumat-eko Emilio Garciak hirugarren.

### Bigarren etapan ipini ziran lider eta amaieraraino eutsi deutzazu txapeldun izan arte.

Lehenengo etapa oso arina izan zan eta gogorra. Urduri egon nintzan. Nik baneukan pentsauta non egin eraso. Gogotsu nengoan banenkialako prestatuta nengoala. Taldeak ikaragarriko lana egin eban, denpora guztian taldeko bat aurretik eroanda. Mendi eta portua hasi zanean, igesean joian Nathan Smith harrapau neban eta beragaz egin neban bidea helmugaraino. Horrek sententzia eban saillkapen orokorra, ze sartu ginan lehenengotik bera, eta ni 30 segundora, atzekoei bentajea hartuta.

Hurrengo egunean be, dana oso-oso kontrolauta eroanda, taldeak lan oso ona egin eban. Holan, bigarren eguna be salbateguan eta lider ipini nintzan. Hirugarren egunean be, taldearen lanari esker oso-oso ondo urten zan dana. Nire taldekide batek irabazi eban etapea eta ni sartu nintzan beretik oso hur, ze helburua zan hori, nik posizioa mantendutea. Laugarren sartu nintzan, eta Nathaneri 13 segundoko gehiago atera neutsazan.

Arrastian kronoa egon zan, 2,5 kilometrokoa, San Cosme igoera. Urduri egon nintzan, ze dana galdu ahal neban. Azke-

nean Emilio Garciak irabazi eban, bigarren egin eban Hodei Muñozek eta ni Emiliogandik 10 segundora sartu nintzan. Nathaneri denporea atera neutsan.

Azkenengo eguneko zan etaparik gogorrena. Oso adi egon behar zan ze igesaldiak egongo ziran eta saillkapen orokorrean mobimentuak egongo ziran. Eki-poak lan oso ona egin eban. Egon ziran pare bat eraso, baina ondo sentidu nintzan, igoera guztietan aurrean sartu nintzan eta ez neban ahuldaderik izan. Baina San Cosme portua hasi baino lehena-go, jausi egin nintzan eta denpora pilo bat galdu neban. Pentsau neban, "akabo! galdu dot", baina nire taldekide batek itxaron egin eustan niri sartzean lagunduteko. Gero, momentu baten nire kabuz joan behar izan nintzan aurrera, eta beste taldekide batek aurrean egoana, kontrolau eban dana oso ondo, taldea gelditzen joan zan, ni sartu ahal izateko. Azkenean esperantza puntu bat sartu jatan, ze 20 segundo erreortau neban. Beste taldeetako aurkariak

be lagundu eusten, eta azkenean, danon artean, lortu neban taldean sartutea, 3 segundo bakarrik atera eusten eta saillkapen orokorrean mantendu egin neban lehenengo postua.

### Erregularitasun handiko txirrindularia zara, ezta?

Bai. Ni sprint-ean ez naz oso-oso ona. Ez naz txarra baina ez da nire punturik fuertea. Ni ez naz kapaza igoal sprint handi baten irabazteko; igoal talde txiki baten bai, baina ha-ta guzti be, gatxa da.

Eskaladorea be ez naz... baina pentsetan dot nahiko konpletoa nazala. Ez naz oso-oso ona baten be ez, baina ondo moldatzen naz danetan. Nik uste dot horrek egiten nauala fuerte. Gainera oso erregularra naz, ia egunero eta tenporada guztian egoten naz maila bardinean. Oso ondo mantenduten naz, aurrean egonda beti.

### Zeintzuk dira zure hurrengo lasterketak.

Ba, oingo astegienean (abuztuaren 10-11n) deskansau egin dot, baina pare bat aste barru hasiko dogu Ribera de Duero Itzulia, UCI mailakoa da, eta hor saiatuko gara ondo egiten. Bueno, lehenengotik jakin behar dot ea neu be egongo nazen horretan, ze taldeko guztiak ezin gara joan: 12 gara eta bakarrik joan ahal dira 8.

Beste helburuak dira lasterketa solteak, herrietako lasterketak, astegienean egoten diranak.



Aimar Marin.

## MENDIA

# Zabalik dagoz izen-emoteak Lemoatx Trail Mendi Martxa eta Lasterketetan

### Erredakzioa

Zemendiaren 17an izango dira Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako mendi lasterketak eta martxak eta Bizkaiko mendi lasterketarako txapelkunak izentako ditu lasterketeak. Lemoako lasterkearen zortzigarren edizioa da aurtengoa eta Etiketa Berdea ekimenaren barruan dago.

Garagarrilean zabaldu ziran *buscametas.com* webgunean Lemoatx Trail mendi martxa eta lasterketarako inskripzioak. Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta eta Lemoako Udalaren laguntzeagaz, zemendiaren 17an izango da Lemoako mendi lasterketa garrantzitsua, aurtengoa gainera Bizkaiko Txapelketa izango da. Izena urri bigarrenaren 27a baino arinago emotea gomen-

datzen dabe antolatzaileek, beranduago ez dabezalako kamisetaren neurriak egotea ziurtatzen baina berez, izen-emotea zemendiaren 10era arte egongo da zabalik, lekuak lehenago bete ezean.

Euskal Herriko mendi lasterketen egutegiko ohiko proba bat da Lemoakoa. Ibilbidearen lehen zatian Aramotz zeharkatuz eta bere bigarren zatian Lemoatxa inguruetatik dabilena; guzti hau korrikalariarentzat eta ikusleentzat



beharrezko zerbitzuak eskaintzen dituan udalerriko kiroldegitik urten eta helduz (dutzak, ekipajeak gordetzea, hornidurea...).

25 kilometro eta 1.300 metro desnibel positibodun lasterketearen prezioa 23 eurokoa da eta 17 kilometro eta 900 metroko desnibel positibodun lasterketearen prezioa barriz 17 eurokoa. Kasu honeetan, federata ez dagozanek bost euro gehiago ordaindu beharko ditue. Martxen kasuan barriz, 25 kilometrokoak 13 euroko prezioa dauka eta 8,5 kilometrokoak, 9 euro. Martxen kasuan, hiru euro gehiago ordaindu behar dabez federatu bakoek. Lasterketa bietan eta martxa luzean 200 lagunek emon ahal izango dabe izena bakoetxean eta martxa laburrean 250 lagunek.

## MENDIA

# Hilaren 7an izango da Zeanuriko Ermiten XXXV. Mendi Martxea

### Jon Urutxurtu

Joko Alai Alkartek antolatutako martxearen ibilbide osoa egiten dabenak hemeretzi ermiten ingurutik igaroko dira, Igririñako (Gorbeia) Edurretako Amarena, kanpoan geratzen da-ta. Zeanurin parroquia bi eta hamazortzi baseleiza dagoz zazpi kofradiatan sakabanatuta. Ibilbide osoa 37 kilometrokoa da, baina ibilbide alternatibo bi be badagoz: bata laburra, 15 kilometrokoa eta bestea ertaina, 28 kilometrokoa.

Ondare erlijiosoa bisitatu eta ezetuz, aldi berean natureagaz hartu-emonetan jarteko aukera parbakoa eskaintzen dau ibilbideak.

### 37 kilometroko ibilbidea

Urtekerea herriko plazan izango da, 07:30ean. Gero, Eleizondo auzunean, Piedadea izeneko baseleiza dago. Ermitaren eleizpetik igaroz, Andra Mari parrokiagaz topo egiten da. Bere kokaera estrategikotik herrigunea kontrolatzen dau eta barroko estiloko erretaula ederra gordetzen dau barruan. Parrokiaren eta Piedadearen artean altxatzen dan altzairuzko kurutzia, Gorbeiak kurutzaren men-deurrena gogoratzeke egin eban 2001ean Nestor Basterretxeak.

Ibilbidea Asterria kofradiako lurretan sartzean da gero, Santi Kurutz baselizearen bila. Zeanuriko mugen barruan egon arren, elei-

zea areatzaztarra da. Ogarabeiti auzotik Ogaragoiti auzora igoz, San Andresera heltzean gara. Urrekoatxa (582 m) mendia ezkerrean itxiz, Zeanuriaren eta Dimaren arteko mugarako norabidea hartzean da San Blasera heltzeako. Ermita hau Dima partean kokatzen bada be, lurra Zeanuriko Iburguen Kofradiaren jaubetza da. San Blasetik aurrera bideak beherantza egiten dau, eta arnasa hartzeako aukerea emoten dau, Altxusta Kofradiako lurretan sartzean daroan aldapaxoari barriro heldu baino lehen. Altxustan ermita bi dagoz: San Migel eta Santa Lutzi. Deigarria da San Migeleko kanpaietako baten irakurri daiteken idazkuna: "*En el ambito donde resuene mi voz no triunfarán los liberales*". Dirudiaz, intera batean karlistak edo konserbadoreak izan ziran jaun eta jaube paraje honeetan...

240-N zeharkatuz, Undurraga auzunerantz jarraitzen da Bilbo urez hornidutuen dauan urtegia eskoialdean itxita. Arratia ibaia zeharkatu ostean, San Pedrori kuku bat egin eta Ipiñabururantz egiten dau bideak, bertan dagozan eleizea, eta baseleiza bien bila: Santiago, San Adrian eta Santa Ageda.

### Bigarren parroquia

Santiago Zeanuriko bigarren parroquia da. Bertako bateo agiriak, Derion, Bizkaiko Eleizaren Historia Artxiboan gordetzen diranak, Bi-

zkaiko zaharrenak dira, 1501ekoak hain zuzen be. Santiagotik Santa Agedara eta jarraian Atxondo igaro eta Muñegi aldetik aurrera eginez, Zanburuko (789 m) hatxaren itzalpean jarraitzen da, Altxuako San Juanera ailegetako. Ermita XV. mendearen amaierakoa da; hemen egindako indusketa arkeologikoetan epigrafe funerario hau topau zan: *Zeiani c/m suo germani. Laun/ti In cor/pore suo/ +S+N ob/it (...)/O(...)* ER/(...) DCC. Zeanuri herriaren idatzizko lehen aitamenetako bat da. Gaur egun be, zeanuriztarrek, aho-hizkuntzan, Zeani izenez deitzen deutesie euren herriari.

Altxua kofradiatik Otzerinmendi kofradiara zuzentzen dan pistatik 20 bat minutu ibili ostean, San Justo azaltzen da haesdui zoragari baten erdian.

Haresduia zeharkatuz eta beherantza pare bat kilometro ibili eta gero, San Lontzo azaltzen da. Tradizioaren arabera, Gorbeia bestaldean dagoan Orozko herritik ekarten ebezan gorpuak hemen lurperatzeko; honen lekuko Pagoniotzetako andabidea toponimoa da. Gero, Uribe kofradian, hiru baseleiza dagoz: San Migel, San Urban eta San Pedro. Hirugarren hau Axpeko jauregiaren jaubetza. Plazan bertan, San Isidro eta bere aurrez aurre dagoan San Antonio ermiten artean igaro bezain laster helmuga azaltzen da.

## PELOTEA

# Aldai-Mendizabal bikoteak irabazi eban Plazandreak torneooa

Finala abuztuaren 5ean jokatu zan eta Amaia Aldai eta Nora Mendizabal 22-21 gailendu ziran Goiuri

Zabaleta eta Enara Gaminderen kontra Bilboko

Esperanza frontoian jokaturako partiduan.

### Erredakzioa

Emaitza estuak erakusten dauan moduan, Aldaik eta Mendizabalek sufridu egin eben partidua irabazteko. Aurretik joan ziran arren, 19na bardindu eben baina Aldaik beste martxa bat sartuta, lortu eben Masters Cup zirkuituko Plazandreak torneoaren finala irabaztea. "Txapel hau inportantea eta berezia izan da, Plazandreak torneo oin dala urte batzuk jokatu gendualako eta urte batzuetan ezin izan dogulako jokatu. Gaine-

ra San Fermin Txapelketa galteatik nator eta horrek motibazio estrea bat emon deusta. Gero, Nora Mendizabalegaz jokatu ahal izanak ilusinoa egin deusta, ze final gehienak beragaz jokatu dodaz eta bat bakarrik irabazi dogu. Sabore gozoagaz amaituteko, beragaz jokatu dodan torneo honetan txapela lortzea berezia izan da. Ilusino handia egin deusku bai Norari eta bai neuri, batez be ikusita zenbateko esfortzua egin behar izan dogun lortzeako" azaldu deutso BEGITURI Amaia Aldaik.



## TXIRRINDULARITZEA

# Bizkaiko eskoletako errepideko lasterketako finala Lemoan izango da

### Erredakzioa

Lemoa Txirrindulari Elkartek eta Bizkaiko Txirrindulari Federakundeak antolatuta urri lehenengoaren 14an, Ausarten Kopa jokaturako finala. Bertan, 7 eta 14 urte bitarteko berrehun ume inguruk hartuko dabe parte guztira, edadearen arabera lasterketetan.

Izena emon ostean, 10:30ean, zirkuituaren errekonozimentua egin eta 11:00etan hasiko da lehenengo lasterketea herriko kaleen artean. Benjamin mailako neska-mutilak izango dira. Hurrengo lasterketan, Kimu lehenengoak mailakoek hartuko

dabe parte, 11:30ean. Ordu erdi beranduago, 12:00etan, Kimu bigarren mailakoek. Kategoria honetan ez da egongo sailkapenik; bai ordea, 12:30ean hasiko dan lasterketan, Haur lehenengo eta bigarren mailako mutil eta neskenak, hain zuzen be.

### Lemoa Txirrindulari Elkartea

Oin dala 13 urte sortu zan Lemoa Txirrindulari Elkartea eta aurtengoa lehenengo antolatuta dabe Bizkaiko ziklismo eskoletako errepideko finala. Alkartek ziklismo eskolea dauka 14 urte artekoentzat. Lasterketak antolatuteaz gainera, alkarteko nagusiek zikloturismoa egiten dabe inguruetatik.

## DISKOA

Maria Vaquerizo kantautore lemoaztarrak bere lehenengo *singlea* atera dau

*Vamos* izeneko kantua da lemoaztarrak estudioan grabautako lehenengo abestia eta plataforma digitaletan dago. Bideoklipa be atera dau.

## Erredakzinoa

Lehenengo *singlea* atera dozu.

Bai. Txikitan hasi nintzan kantetan baina nire gela barruan. Behin, Zornotzako Musika Eskolan pianoa jotzen eban lagun batek esan eustan behar ebala nonor kantetako eskolako hiruhileko entzunaldian. Orduan hasi nintzan publiko aurrean kantetan. Gero 18 urteaz *castingetan* hasi nintzan apuntetan: La Voz, Got Talent eta holangoetan. Ez ninduen hartu baina esperientzia hartu neban eta lotsea kentzean hasi nintzan.

## Lemoakustiken jo dozu behin baino gehiagotan.

Bai. Oin dala urtebete eta erdi hasi nintzan tabernetan eta Bilboko kaleetan jotzen. Eta pasau dan urtean deitu eusten Lemoakustik-etik jaialdian joteko. Aurten be bai. Lehenengo urtean bersinoak kantau nebazan, baina aurten abesti gehienak neureak ziran.

Konfinamentuan hasi nintzan abestiak egiten.

Eta oin *single* bat atera dozu.

Bai, kanta bakarra da. Hau da estudioan grabautako nire lehenengo abestia. Ez dago euskarri fisikoan baina bai plataforma guztietan: Spotify, Youtube, Apple... Apurka-apurka aterako dodaz kanta gehiago eta gero, akaso, hainbat dagozanean, euskarri fisikoan.

Zergaitik aukeratu dozu *Vamos* lehenengo izateko?

Gura neban udan izatea, eta niretzako abesti horrek dauka udako sentimentu hori. Poztasuna adierazoten dau.

## Gitarreagaz kantetan dozu?

Gitarreagaz konposatu neban eta akustikoetan gitarreagaz jotzen dot. Baina estudioan, sintetizadoreagaz grabau dogu eta ordenagailuaren bidez dago dana ekoiztuta, gitarra barik. Niretzat oso interesgarria izan da hori, ze beti egin dot gitarreagaz eta ez dodaz entzun nire abestiak holan produziduta. Ruben G. Mateos-en estudioan dago grabauta.

## Zein da zure musika estila.

Esango neuke ni pop *diva* bat nazala, kar, kar, ze nire erreferenteak Whitney Houston, Madonna... Dua Lipa oin

eta horreek guztiak dira. Baina country-a be asko entzuten dot eta hor dagoz Kacy Musgraves, Kelsea Ballerini... Elektronikoa be bai, rock-a be bai... Metallica, Guns & Roses, Aerosmith... nahaste bat daukat. Nire generoa batez be pop-a da baina beste eragin askogaz.

## Bideoklipa be atera dozu kantuagaz eta Youtuben dago ikusgarri, ezta?

Bai. Lucia Vittoria Sabba da zuzendaria. Pasau dan martian, Bilbon, *podcast* baten hartu genduan parte biok eta *podcastean* egin eustan galdera bat "egingo dogu kolaborazino bat?" Eta orduan deitu neutsan, eta kafe bat hartzeako geratu ginan, eta erakutsi neutsazan nire abesti batzuk eta holan egin genduan

bideoklipa. Sano pozik nago eta gauza gehiago egin gura dodaz beragaz.

## Zeintzuk dira zure hurrengo proiektuak?

Oin, gura dodana da apurka-apurka abestiak atera. Kantu bat pop izan daiteke; beste bat, akaso, pop-country; beste bat elektronikoa izan ahal da... Oingo ez dakit LP-rik aterako ete dodan baina abesti solteak bai. Etorkizunean, seguruenik, disko bat aterako dot, baina momentuz, abesti solteak.

## Kontzerturik badaukazu?

Oin abuztuan ez daukat ezer, oporretan nago, baina gero urrietan bai. Urri lehenengoan kontzertu bi daukadaz eta urri bigarrean beste bat. Gasteizen eta Gipuzkoan dira kontzertuok.

*Oin, gura dodana da apurka-apurka abestiak atera. Kantu bat pop izan daiteke; beste bat, akaso, pop-country; beste bat elektronikoa izan ahal da... Oingo ez dakit LP-rik aterako ete dodan baina abesti solteak bai*



Maria Vaquerizo.

## ANTZERKIA

## Ikuskizun bana egongo da jaietako bariku eta domekan Arteako jaietan

## Erredakzinoa

Eidabe ekimen kulturalak-en *Gora Bihotzak!* umeentzako ikuskizuna, barikuan, hilak 6, 18:00etan, egongo da eta domekan, hilak 8, 13:00etan, Zirkozaurre konpainiaren *Harreman* zirkua eta musika tradizionala batzean dituan ikuskizuna, Arteako plazan.

Eidaberen *Gora Bihotzak!* ikuskizuna musikala da, koreografia asko dagoz eta konpainiakoek plazan dagoz jantzen ipintzen ditue koreografia honeekaz. Ez bakarrik umeak, gurasoak be dantzan ipintzen saiatzen dira. Hamabost abesti inguru dagoz ikuskizunean, danak jantzagarriak eta estilo desbardinetaoak:

pop, rock eta folk estilokoak, hain zuzen be. Ikuskizunerako beren beregi Inun musikariak sortutako *Gora bihotzak* kanteagaz zarratuten dabe ikuskizuna.

Zirkozaurre konpainiaren *Harreman*

Sano desbardina da domekako ikuskizuna. Izan be, Zirkozaurre konpainiak zirkua eta euskal musika tradizionala batzean ditu *Harreman* ikuskizunean.

"*Harreman* zuztarretatik, identidadetik bidaia bat da. Ibilbide honetan, zirkuko teknikak berasmatu egiten dira, gure melodia ezagunenakaz besarkatzeko eta eszena emozinoz eta konplizidatez beteteko" dinoe euren webgunean.

## ANTZERKIA

## Euskal musikearen istorio absurdo, ironiko eta dibertigarria Lemoako Kulturguneko plazan



Mikel Martinez eta Patxo Telleria.

## Erredakzinoa

Hilaren 8an, 19:00etan, Mikel Martinezek eta Patxo Telleriak, *Ez dok hiru! Akustikoa*. *Euskal musikaren benetako istorioa* eskainiko dabe Kulturguneko plazan, Elizondoko jaietako egitarauaren barruan. Tartean Teatrok ekoizitako ikuskizunak, umorez, euskal musikeari omenaldia egiten deutso.

Patxo Telleriak idatzi eta berak eta Mikel Martinezek interpretatuko lan honek, euskal musikeari errepaso ironiko, absurdo eta dibertigarria egiten deutso. Bersino akustikoa da Lemoara dakarrena, zuzenekoaren indar berberagaz. "Zenbat euskal kanta ezetuten dozuz, zahar edo barri? Kalkulua egin dozu inoz? Ziur gagoz uste dozuna baino askoz gehiago dirala" dinoe lanaren sinopsian. Barreak bermatuta dagoz euskal musikeari omenaldi berezi honetan.

## IKASTAROAK

# Izena emon daiteke udalek antolatutako ikastaroetan

### Erredakzinoa

Hastear dagoan 2024-2025 ikasturterako Arratiako udalek, ikastaro eta tailer eskaintza zabaldu egin dabe eta gehienetan matrikula egiteko epea hilaren 9an zabalduko da.

Igorren eskaintza urteagaz batera egiten da eta hiruhileko ikastaroetan barriztu egiten da. Urrietan, 2024ko ikastaroek jarraituko dabe. *Ume eta gazteentzako akrobaziak, Yoga, Hipopresiboak, Txikung eta Literatura* tailerrak aurkitu daitezke Igorren.

### Areatza

Honeek dira Areatzako Udalak eskaintzen dituan ikastaroak: *Eskulanak, Crossfit, Zumba, Spinning, Pilates, Mantenimendu gimnasia, Puntua eta kakorratza, Euskal dantzak, Ehoziri lanak, Joskintza, Luzaketak eta Yoga*. Euskal jantzak doban dira eta beste ikastaroetan prezioak 95 euro (luzaketak eta yoga) edo 145 eurokoak dira (beste guztiak). Izena urri lehenengoaren 9tik 20ra emon daiteke udal txaneran edo <https://forms.gle/zPdLNKgh2z-qB1HCB6> helbidean, izena emoterakoan ordaindu behar da erdia; beste erdia, abenduan; eskudirutan ordaintzen dabenek

osorik ordaindu beharko dabe izena emoterakoan. Ikastaroak urri bigarrenean hasi eta bagilarren 13an amaituko dira.

### Artea

Hilaren 20ra arte emon daiteke izena Arteako ikastaroetan. *Eskulanak, Zurezko talla eta pirograbazioa, 3. adineko gimnasia, Zumba, Pilates, Entrenamendu funtzionala, Hipopresiboak, Biodantza, Euskal dantzak nagusientzat, Euskal dantzak 10-15 urte bitartekoentzat, Margogintza, Irakurleen txokoa* Alaine Agirregaz, *Irakurketa kluba 2-5 urteko umeen familientzat eta Irakurketa kluba 6-8 urteko umeen familientzat* dira Arteak eskaintzen dituan ikastaroak. Ikastarook urri bigarrenaren lehenengo astean hasiko dira.

### Bedia

Hilaren 9tik hasi eta 19ra arte emon daiteke izena Udalak eratuako ikastaroetarako, 16:30etik 19:30era liburutegian. Honeek dira ikastaroak: *Yoga, Pilates, Koroa, Euskal dantzak, Jaziri dantza taldea, Euskera ikasteko ikastaroa, Marrazketa, Gimnasia erritmikoa, Memoria kognitiboa, Oinarrizko interneta, Batzen-kido, Saltsa/menrege dantzak, Trokelgintza: oina-*

*rrizko ikastaroa eta Arteterapia.*

### Lemoa

Lemoan izena emoteko epe desbardinak dagoz. Urri lehenengoaren 4tik 17ra, hurrengo ikastaroetan emon daiteke izena: *Arteterapia I eta II, Emakumeak elkarrekin hazteko espazioa, Xakea haurtzaroan, Umeen irakurle taldea, Argazkigintza digitala, Informatika, Eskulanak, Smartphone eta tablet ikastaroa*. Euskera ikasteko ikastaroetan barriz, izena emoteko epea hilabete osoa da; hau da hilaren 1etik 30era, eta ikastarook honek dira: *Euskara eskolak, Euskara merkatariantzat eta Pertsona migratuentzat euskara*. Azkenik, urri lehenengoaren 4tik hilaren 30era arte emon ahal da izena hurrengo ikastaroetan: *Gure sareak josten eta ehuntzen, Esperientziak kontatzearen balioa, Teknologia berriak pertsona nagusientzat, Elikagaien kontserbazioa eta Risoterapia*.

Izen-emoteak Udal webgunean egin behar dira.



## KOTXEPIN

# Ikasturte barriari begira, Kotxepin Kultur Etxeko bazkide izatearen abantailak dakarrez gogora Lemoako Udaletik

### Erredakzinoa

Bazkideek %30eko deskontua daukie emonaldi guztietan. Bazkide izateko modalidade bi dagoz. Bata, Kotxepin Lagun izenekoa, 14 urtetik gorakoentzat dana. Bazkide honek, urtean 20 euro ordaindu behar dabez %30eko deskontua izateko emonaldi guztietan. Kotxepin Txiki bazkideek, barriz, 13 urte artekoek, urtean 10 euro ordaindu behar dabez. Bazkide-tzea [www.lemoa.net](http://www.lemoa.net) webgunean egin daiteke.

### Programazinoa

Udako etenaren ostean, bueltauko dira kultura jarduerak Kotxepin Kultur Etxera. Urri lehenengoaren 20koa izango da lehenengo, Pantzart konpainiaren *Metamorfosien joko*a, 4 urtetik gorako umeentzako ikuskizun interaktiboa, hain zuzen be. Hortik aurrera, ipuin kontaketa, antzerkia, kontzertuak... hilero hiru ikuskizun ikusteko aukerea egoten da Kotxepinen.

Urrietako eta zemendiko programazinoa konsultatu daiteke udal webgunean.



Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza  
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza  
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82  
E-posta: gorbelaide@gorbelaide.com

**HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA**

*Berriago dago jabetza*  
-Solmentan zein alokairuan  
Lurrak (erakutsi, lantat, basot...) Etxeak/izak (suak, berroak, etxeak...) Gerojeak Loker komertzialak Pabilioiak...-Bolonarioak

*Berriago dago proiektuak*  
Irakin berriak erakiteko Emakumeak Arkitekto-proiektuak

-Barne diseinua  
-CEE eta IEE-ak  
-Irteerak oinarritutako  
-Negozioak irekitzeko kudeaketa

Urdurketa Agirre 25, 48100 - Igorte  
Nagusia: 94 428 78 15 - 428 78 31 31  
0101101008@arratia.net  
www.lemoa.net  
arratia@arratia.net

Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)  
Tel.: 94 673 63 61

Graduazinoak  
Ikusmen terapia  
Ikusmen gibusua  
Begiko tentsinoak  
Lentilen adaptazinoa  
Kiroletarako betaurtekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
Tel.: 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

**JB Eguzkiza Meabe HI**  
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

**Ugarana HI**  
Tel.: 94 631 55 32 Dima

**Zubialde HI**  
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

**Zeanuri HI**  
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

**Ikastola Arratia HI**  
Tel.: 94 428 78 15 Artea

**Arratia BHI**  
Tel.: 94 428 79 34 Igorre

**Areatzako Herri Eskola**  
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

**I. Zubizarreta HLHI**  
Tel.: 94 673 60 22 Igorre

Haur Hezuntza  
Lehen Hezuntza  
Dorrigorretako Digarren Hezuntza  
Daxilergoan  
Hezuntza Zinloan  
2 urteko 18ra

## AGENDA

**URRI LEHENENGOAK 3  
ARANTZAZU**

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

**AREATZA**

Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00retatik 21:00etara eta astegoienetan, 09:00etatik 21:00etara.

Urri lehenengoaren 26ra arte, Areatzako Mendi Martxarako izen-emotea zabalik <https://areatzakomartxa.blogspot.com> webgunean.

Hilaren 4ra arte, Peña Gorbeako Gurutzea Athletic Clubeko hilaren 7rako Gorbeia urtekerarako izen-emotea 691 529 748 telefono zenbakian.

**ARTEA**

Atzen eguna. Jaietako izen-emoteak zabalik: herri bazkaria (udaletxean), herri afaria (5 euro Herriko Bentan eta Izar Zurian) eta Mozorro gaua (udaletxean).

Hilaren 20ra arte emon daiteke izena *Eskulanak, Zurezko talla eta pirograbazioa, 3. adineko gimnasia, Zumba, Pilates, Entrenamentu funtzionala, Hipopresiboak, Biodantza, Euskal dantzak nagusientzat, Euskal dantzak 10-15 urte bitartekoentzat, Margogintza, Irakurleen txokoa* Alaine Agirregaz, *Irakurketa kluba 2-5 urteko umeen familientzat* eta *Irakurketa kluba 6-8 urteko umeen familientzat*.

17:30ean, jaietarako herri jantzearen ensaioa Kultur Etxean Jai Batzordeak antolatuta.

**BEDIA**

Ludoteka zerbitzua zarratuta egongo da urri lehenengoaren 5era arte.

Liburutegi zerbitzua itxita urri lehenengoaren 5era arte.

Ikasgelaren zerbitzua Bete-beteka ikasgelan. Astelehenetik barikura 09:00etatik 16:00etara eta 19:30etik 21:30era; zapatu eta domeketan, 09:00etatik 21:00etara. Izena emoteko eta erreserba egiteko 16:30etik 19:30era liburutegian. Txartela personalizaua da eta liburutegian jaso behar da.

**IGORRE**

08:00retatik 22:00etara, ikasgela egunero zabalik Kultur Etxean.

Urri bigarrenaren 31ra arte, greba egunetan kiroldegia zarratuteagaitik abonua eta ikastaro tasak itzultzeko eskaerak egiteko epea, kiroldegiko harreraren edo [kiroldegia@igorre.net](mailto:kiroldegia@igorre.net) helbidean.

09:00etatik 13:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik. Ez da liburu mailegurik egingo. Hilaren 6ra arte.

**LEMOA**

Urri lehenengoaren 7ko bertso-bazkarirako txartelen salmentea udaletxean, urri lehenengoaren 4ra arte. Amets Arzallus eta Aroa Arrizubieta. Helduek 16 euro eta umeek 10 euro.

08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero Kotxepinen zabalik.

Zemendiaren 10era arte, Lemoatx Trail mendi lasterketarako izen-emotea zabalik <https://www.buscametas.com/modulos/ticket/evento.php?codigo=1194> estekan. Hilaren 4ra arte erosi daitezke

txartelak Andra Mari eguneko bertso-bazkarirako udaletxean.

Hilaren 30era arte, emon daiteke izena *Euskara eskolak, Euskara merkatarientzat* eta *Pertsona migratuentzat euskara* ikastaroetan [www.lemoa.net](http://www.lemoa.net) webgunean.

**UBIDE**

Izena emon daiteke udaletxean, hilaren 6an eta 27an egongo dan podologia zerbitzurako.

**ZEANURI**

Batxiler eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00retatik gaueko 21:00ak arte ikasgela zabalik egunero. DBHko ikasleentzat, astelehenetik egunera 17:00etatik 19:00etara.

*Emakumearen zikloak eta osasun hormonal sendabelarrak* uztartuz ikastaroa Garbiñe Larrearen eskutik urri lehenengoaren 18an, urri bigarrenaren 16an eta zemendiaren 20an. Ikastaroa 18:00etatik 20:00etara izango da Kultur Etxean. Izen-emotea zabalik [mazalaandratatla@gmail.com](mailto:mazalaandratatla@gmail.com) helbidean.

**URRI LEHENENGOAK 4  
LEMOA**

Hilaren 17ra arte, izena emon daiteke *Arteterapia I eta II, Emakumeok elkarrekin hazteko espazioa, Xakea haurtzaroon, Umeen irakurle taldea, Argazkigintza digitala, Informatika, Eskulanak* eta *Smartphone eta tablet* ikastaroetarako [www.lemoa.net](http://www.lemoa.net) webgunean.

Hilaren 30era arte, *Gure sareak josten* eta *ehunten, Esperientziak kontatzearen balioa, Teknologia berriak pertsona*

*nagusientzat, Elikagaien kontserbazioa* eta *Risoterapia* ikastaroetan [www.lemoa.net](http://www.lemoa.net) webgunean.

**URRI LEHENENGOAK 5  
ARTEA**

Arteko jaiak hilaren 8ra arte. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

**URRI LEHENENGOAK 6  
AREATZA**

16:00etan, Peña Gorbea Gurutzea Athletic Club-ekoak Arrabako aterpera igon umeakaz, txango bat egin eta gaua pasetako.

**ARTEA**

02:30ean eta 05:00etan, jaietatik Arratiako herrietara bueltetako autobusa. Autobus geralekuan.

**IGORRE**

Arratia Motor Taldearen XXIV. konzentrazinoa. 20:00etan, txosnaren irekiereta eta izen-emotea; 21:00etan, taloa txorizoagaz; 24:00etan, itxierea.

**URRI LEHENENGOAK 7  
AREATZA**

Peña Gorbeako Gurutzea Athletic Cluben Gorbeia igoera. 09:00etan, urtekera frontoitik; 14:30ean, hildako bazkideei omenaldia Pagomakurren; 15:00etan, sagardotegi erako bazkaria Trikititxoaren eskutik; 20:00etan, Peñaren egoitza dan TQCren tabernan Willian, Koki y Txemiren eskutik kontzertua.

**IGORRE**

Arratia Motor Taldearen XXIV. konzentrazinoa. 10:00etan, txosnaren irekiereta eta izen-emotea;

12:00etan, motor ibilbidea; 14:00etan, marmitakoa; 16:00etan, motor jolasak eta urdaiazpiko zozketea; 18:00etan, erakustaldia 666 Stuntman; 20:00etan, kontzertua Howdy Bluegrass; 20:30ean, parrilladea; 21:30ean, Triple zero eta 24:00etan, itxierea.

**LEMOA**

13:00etan, poteo musikatua Arratiako Musika Eskolako trikitilariakaz; 15:00etan, bertso-bazkaria. Bertsolariak: Amets Arzallus eta Aroa Arrizubieta. Kulturguneko plazan, eurria bada eskolako aterpean; 19:00etan, poteo musikatua Txeroiak taldeagaz.

**ZEANURI**

Zeauriko Ermiten XXV. Mendi Martxea Joko Alai alkarteak antolatuta. Hiru ibilbide: 37 kilometro, 28 kilometro eta 15 kilometro. 06:45ean, izen-emotea plazan; 07:30ean, urtekera plazatik.

**URRI LEHENENGOAK 8  
LEMOA**

Andra Mari jaiak Elizondon. 12:00etan, meza nagusia Andra Mari eleizan; ostean, Durundi Barri Dantza Taldearen ekitaldia; 13:30ean, Kittu musika taldea herritik; 19:00etan, Mikel Martinez eta Patxo Telleriaren *Ez dok hiru! Akustikoa*. *Euskal musikaren benetako istorioa* antzezlanak Kulturguneko plazan, eurria bada Kotxepin Kultur Etxean.

**ZEANURI**

Gorbeia Euskadik antolatuta, Undurraga urtegiari buelta. Bisita gidatua.

**URRI LEHENENGOAK 9  
AREATZA**

08:00retatik 15:00etara eta astelehenetan, 15:30etik 17:30era, hilaren 20ra arte, udal ikastaroetan izena emoteko epea udaletxean eta <https://forms.gle/zPdLNKgh2zqB1HCB6> estekan. Ikastaroak: *Eskulanak, Crossfit, Zumba, Spinning, Pilates, Mantenimendu gimnasia, Puntua eta kakorratza, Euskal dantzak, Ehozi lanak, Joskintza, Luzaketak* eta Yoga dira.

**BEDIA**

16:30etik 19:30era, 2024-2025 ikasturtea hasi liburutegian. 17:00etan, ludotekan eta Bedian erroldatutako 0 eta 17 urte bitartekoentzako urtebetetzeak ospatzeko lokalaren zerbitzua martxan.

16:30etik 19:30era, hilaren 19ra arte, urri bigarrenaren 12an izango dan Arratiako Tranbidearen Bidea urtekerarako eta urri bigarrenaren

26an izango dan Itsasmendi txakolindegira urtekerarako izen-emotea liburutegian.

16:30etik 19:30era, hilaren 19ra arte, Udalak eraturako ikastaroetan izena emoteko epea. Ikastaroak: *Yoga, Pilates, Koroa, Euskal dantzak, Jauziri Dantza Taldea, Euskera* ikasteko ikastaroa, *Marrazketa, Gimnasia erritmikoa, Memoria kognitiboa, Oinarrizko interneta* eta *Batzen-kido*.

16:30etik 19:30era, hilaren 20ra arte, Gaztegunerako, difusino talderako, ikasgela zerbitzua erabilteko, Gabonetako apaingarriak sortzeako tailerrerako eta urri bigarrenaren 5ean izango dan gazteentzako Berangoko Sputnikclimbing-erako urtekerarako izen-emoteak liburutegian.

**IGORRE**

Astelehenetik barikura liburutegia zabalik 09:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 20:30era. Publikoari arreteta: astelehenetik egunera 09:00etatik 13:30era.

**ZEBERIO**

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

**URRI LEHENENGOAK 10  
LEMOA**

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

**URRI LEHENENGOAK 14  
ARTEA**

18:30ean, Bizkaiko Ardi-txakurren Txapelketa Alderdi Etxean.

**LEMOA**

Ausarten Kopa. Bizkaiko eskoletako errepideko lasterketea. 09:00etan, izen-emoteak; 10:30ean, zirkuituaren errekonozimientua; 11:00etan, benjaminak; 11:30ean, kimuak 1.a; 12:00etan, kimuak 2.a; 12:30ean, Haurrak 1. eta 2.

**Amets Arzallus eta Aroa Arrizubieta bertsolariak Lemoan**

Hilaren 7an, bertso-bazkaria egongo da Lemoako Kulturguneko plazan. Bertsoak kantetan, Amets Arzallus bertsolari beterranoa, 2013an Bertsolari Txapelketa Nagusia be irabazitakoa eta Aroa Arrizubieta gaztea 2024an Arabako txapelketa izan dana egongo dira. Bazkarirako txartelak udaletxean erosi daitezke 10 euroko prezioan hilaren 4ra arte.


Aurkezpenik ez dau behar Amets Arzallus Antiak (Hendaia, 1983). Ez bakarrik, 2013ko Bertsolari Txapelketa Nagusia irabazteaz gainera, lau aldiz nagusitu dalako Xilaba Bertsolari Xapelketan eta beste hainbestetan Nafarroako Bertsolari Txapelketan, baita sarritan etorren dalako Arratiako bertso saioetara be.

Aroa Arrizubieta Barredo (Gasteiz, 2001) Euskal Herriko Eskolartekoa irabazi dauan lehenengo arabarra izan zan 2017an; 2019an Arabako Bertsolari Txapelketa nagusiko finalerako sailkatu zan eta hirugarrenez irabazi eban Arabako eskolartekoa. 2024an Arabako Txapelketea irabazi eban.



# KOMIKIA

Kailo Ren



## IRAGARKI LABURRAK

### DANERIK

#### LONJEA ALOKATZEN DOT

Igorreko Olabarra uzoan dagoan lonja bat alokatzen dot kontratupean. Informazioa, 647 239 449 telefonoan.

#### GARAJEA ALOKATZEN DOT

Alkarren ondoan dagoan garaje bi alokatzen dira Igorreko Elexalde kaleko 47 zenbakian, On Egin-en ondoan. Biak batera ala banaka alokatu daitezke. Batera egin ezkeru prezioa egingo da. Interesdunek deitu 615 723 646 telefonora.

#### GARAJE PARTZELEA ALOKAIRUAN

Garaje partzela bat alokatzen da Igorren, anbulategi atzeko parkean. Interesatuak 629 307 400 telefonora deitu.

#### GARAJEA ALOKATZEN DOT

Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefonoa: 94 631 60 22.

#### YOGA ETA COACHING

Gorputza indartu eta flexibilizatu, zure amesetako etorkizuna sortu, zure barne bakea topatu eta bizitza orekatu. Online klaseak. Kontakua: 672 873 452 (Nerea).

### LANA

#### FRANTSESEKO KLASEAK ONLINE

Adin eta maila guztiak. Bakarka zein taldeka. Frantses filologian graduatua. Interesdunek deitu: 610 374 854 (Nerea).

#### KLASE PARTIKULARRAK EMON ETA UMEAK ZAINTEAN DODAZ

Lehen Hezkuntzakoei ingeles eta beste ikasgaietako eskola partikularrak emoten deutesdaz. C1 titulua daukat. Umeak jagoteko be prest nago. Interesdunek deitu: 650 842 292.

#### ALEMAN ESKOLAK EMOTEN DIRA

Esperientzia luzeko alemaniarrek adin eta maila guztiakoko aleman eskolak emoten ditu, online eta aurrez aurre. Interesdunek deitu 610 863 369 telefonora.

**Zeozero saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa



Zenbaki honetako saridunak:

**1**

**Garena txakolinaren 3 botila.**

Jon Ordeñana (Areatza)



**2**

**Areatza Musik & Beer jaialdiko antolakuntzeak emondako kamiseta bana.**

Miriam Abasolo (Artea)  
Laura Korta (Igorre)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 22 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | [www.begitu.eus](http://www.begitu.eus) | [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus)

**Dia %**  
**PEDRO**  
**AUTOZERBITZU**  
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
ROSANA eta ROSER  
-  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
-  
Tlf. 94 631 92 00

ASEGURUAK: **ZUZENBIDE**  
AUTOAK ETXEBIZITZAK  
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAZ KONTABILITATEA  
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...  
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96  
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

**BIXER**  
**TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3. 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
94-673-70-87  
609-79-40-54

**begitu**  
**eus**



**ZORNOTZA**  
CENTRO INTEGRADO DE FORMACIÓN PROFESIONAL  
LANBIDE HEZKETAKO KASTETZE INTEGRATUA

Urritxe auzunea, z/g - Tfno: 688 665 300 - 946 730 251  
48340 AMOREBIETA-ETXANO (Bizkaia)  
e-mail: maranburu@fpzornotza.com • www.fpzornotza.h.eus

*Euskadi, auzolana, bizi onena*




EMPLEO ETA GIZARTE POLITIKA  
DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES

lanbide®

LANDUNEI ETA LANGABEEI ZUZENDUTAKO IKASTAROAK				
KODEA		IKASTAROA	ORDU	DATA
GIZARTE ETA KULTUR ZERBITZUAK (praktikak enpresan)				
24481758	SSCS0208	Mendekotasuna duten pertsonen laguntza soziosanitarioa ematea gizarte-erakundeetan MF1016, MF1017, MF1018, MF1019	370	Iraila
OC24480149				Urria
24481759				Otsaila
FABRIKAZIO MEKANIKOA				
OC24480150	UF3004	Karbono-altzairuzko TIG soldadura	90	Otsaila
OC24480124	UF3005	Altzairu herdoilgaitzezko TIG soldadura	90	Azaroa
OC24480125	UF3008	Soldadura karbono-altzairuzko xafila eta profilez estalitako elektrodoekin eta oinarritzko elektrodoekin	90	Iraila
OC24480151	FMEC0003OH	AUTOCAD	66	Azaroa
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA (praktikak enpresan)				
24481757	ELEM3011	Automatizazio-sistema industrialen muntaketa eta zainketa MF1978, MF1979	390	Azaroa

%100 Diruz lagunduak Lanbide eta Europear Gizarte Funtsagatik

Aurreinskripzioa zabalik (ikastetxean eta/edo telefonoz)

www.lanbide.euskadi.eus  
**688 665 300**







# BAIETZ 30 LAGUN BARRI EGIN!

2024AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2024an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da: Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?



Ondino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.

✂

Izen-abizenak: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_

Telefonoa: \_\_\_\_\_ Helbide elektronikoa: \_\_\_\_\_

Kontu korrontearen zenbakia: ES \_\_\_\_\_

Aukeratu urteko kuotea:  40€  60€  80€

\*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

begitu.eus



Edo e-mailez, bialdu datuok: [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera.